

Pardel berrerabilgarriak Itsasondoko haurtzandegian



Pardelak ere berrerabilgarriak dira
AHT azkeneko berriak
Kultur agenda



Martxoaren lehengo igandean Euskal zein Galiziar apokalipsien testigu izan ginen, edo, Galizian dudan osabak esan bezala, historiako bigarren domeka odoltsuan. Ezker Abertzalearen ilegalizazio medio, fronte espainolista nagusitu da parlamentuan. Askok hainbeste maite eta gorai patzen duten demokrazia honek kale egin du beste behin ere, Ezker Abertzalea era ilegitimoan parlamentutik botatzeaz gain, bozka portzentaia ez baitira garrantzizkoak legebiltzariakideak banatzeko orduan. Esan bezala, fronte espainolista nagusitu da parlamentuan, legebiltzariakideen erdia eta bat gahiago baitauzkate internazionalistez mozorrotutako konstituzionalistek, baina Euskadik aldaketa eskatu duela esaten duten horiek bozken banaketa-sistemaren tranpa erabili baino ez dute egiten. Izan ere, PSOE, PP eta UPyDren bozkek batuta lortzen duten emaitza 482.839koa da, Aralar, EAJ, EA eta EBren bozkek batuz gero, ordea, 532.725 lortuko lirake. Argia da bloke ezespainolistaren garaipena, beraz, espainolistek era bidegabean bereganatu dute parlamentua bozken %25,72az, ez-espainolisten %28,38-aren aurrean, eta hori guztia, noski, D3Mren bozkek kontuan hartu gabe (kontuan hartuta 633 649 bozka edo %33,72ak egingo lioke aurre López). Eta, hori zergatik? Zergatik baimentzen du daukagun hauteskunde-legeak herritarron hitzaren gaintik trikimailu matematikoak gailentzea? Zergatik balio du arabar baten bozkek gipuzkoar batenak baino gehiago eta, gipuzkoarrarenak bizkaitarrarenak baino gehiago? Bidegabeba dela beti pentsatu izan dut, parlamentua nola osatzen zen azaldu zidaten lehenengotik, baina, tira, horrekin ezin da orain ezer egin eta, gainera, betidanik izan dugu banaketa-sistema hori. Ez dugu beti izan, ordea, Ezker Abertzalerik gabeko parlamentua, argi eta garbi faktore hori izan da aurtengo hauteskundeetan determinatzailea.

Kultur agenda

Martxoa-Ekaina

- **MARTXOAK 14:** Irteera Maulera bertako Maskarada ikustera. Hitzaro elkararekin elkarlanean Itsasondotik autobusa abiatuko da Maulera eta bertako kaleetan maskarada ikusteko aukera izango da. Prezioa 10€.
- **MARTXOAK 18:** Antzerkia "Greban gaude". Gaueko 22:00etan Itsasondoko aterpe itxian.
- **APIRILAK 2:** KORRIKA Itsasondora iritsiko da goizeko 10ak inguruan. Arratsaldeko 17:30etan Korrika-txikia izango da Aramatik abiatuta; ondoren merienda eta jolasak Errota pilotalekuan.
- **APIRILAK 3:** KORRIKA kulturalaren barne arratsaldeko 19:00etan Bertso-Triki-Poteoa izango da. Ondoren Bertso-Triki-Afaria izango da Arbel-aitz elkartean.
- **APIRILAK 5:** Itsasondotik KORRIKA-ren amaiera festara Gasteiza joateko autobusa izango da.
- **APIRILAK 27:** Odol emaileak
- **APIRILAK 26:** Herri Krosa izango da. 10:30etan inkripzioa eta 11:00etan krosa. Ondoren patata tortilla lehiaketa izango da.
- **APIRILAREN 21etik MAIATZAREN 28ra:** Astearte eta ostegunetan sendabelar ikastaroa izango da.
- **MAITZAK 3:** Urkiko jaiak
- **MAIATZAK 10:** Herri Urratsera irteera.
- **MAIATZAK 16:** Mountain Bike travesia izango da.
- **MAIATZEAN San Juan** bezperan dantzatzeko Sorgin-dantza ikastaroari hasiera emango zaio.
- **EKAINAK 6:** Itsasondo-Orio mendi irteera
- **EKAINAK 20:** Eskola amaiera festa.
- **EKAINAK 23:** San Juan Sua, sardina jana eta Sorgin-dantza.



Euskaldunen hizkuntz kexak jasotzeko, buzoiak jarriko dira Itsasondon



Martxoan, UEMAKo herri gehienetan bezalaxe, Itsasondon ere Hizkuntza eskubideen buzoiak jarriko dira, euskaldunok euskaldun koherente gisa jokatzeari edo jokatu nahi izateari izan ditugun eskubide urraketak salatzen. Izan ere, oraindik asko dira euskaldunak baztertzen dituzten tokiak eta eragileak: erakunde publiko nahiz pribatuak ez dituzte agiriak euskaraz bidaltzen, ahoz euskaraz hastean gaztelaniaz mintzatzeko eskatzen dute, informazio komertziala gaztelania hutsez bidaltzen dute... Kasu horiek guztiak eta gehiago jasotzeko eta horiei irtenbidea bilatzeko, Itsasondoko Udalak buzoiak jarriko ditu herritarren eskura, udaletxeetan, liburategian eta tabernan.

Kexa jartzera joaten denak inprimaki batzuk izango ditu buzoien ondoan, betetzeko sinple-sinpleak. Nolanahi ere, zailtasunik izanez gero edo argibiderik behar izanez gero, udal langileek beren prestutasun osoa adierazi dute, nahi adinako laguntza emateko. Gainera, udaletxeetara joaterik ez dutenek ere aukera izango dute kexak telefonoz jartzeko. Batetik, UEMAKo bulegora dei dezakete (943816699), han bil-tzen baitira Goierriko kexak. Bestetik, zuzenean Behatokiari jar ditzakete kexak, Euskararen telefonora deituta (902194332).

Kexa jartzeko, izen-abizenak eman behar dira, baina UEMAK nahiz Behatokiak konfidentzialtasun osoz jokatu dute, Datuen Babesaren Legeari jarraiki, eta ez diote inori emango kexa jartzailearen daturik. Hori bai, Udalari Euskaldunen Mankomunitateak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak kexa behar den tokira helarazi eta haren segimendua egingo dute. Amaieran, UEMAK eta Behatokiaren konpromisoa da kexaren nondik norakoaren berri ematea herritarrei.



Gainera, Goierrin, 5 udalari dira UEMAKo kide: Itsasondo, Arama, Alzaga, Gaintza eta Zaldibia. Apirilera udaletxe guztietan buzoiak jarrita egotea da asmoa. UEMAKo udalek ez ezik eskualdeko euskalgintzak ere parte aktiboa izatea lortu nahi da egitasmoan.

Egitasmoa Udalari Euskaldunen Mankomunitatearen eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren arteko hitzarmenaren ondorioa da. Hitzarmenean, UEMAK eta Behatokiak mankomunitateko herritarren kexak bidartzeko konpromisoa hartu zuten.

Egitasmoa urriaren hasieran jarri zen abian UEMAKo herri batzuetan, eta dagoeneko arrakasta handia izan du, jasotako kexen kopuruari begira: 100dik gora kexa jaso dira UEMAKo herrietan. Horien artean, hamaika urratzaile daude: agiriak gaztelania hutsez bidaltzen dituzten erakunde publikoak, informazio komertziala gaztelaniaz bakarrik bideratzen duten enpresak, jendea atenditzeko langile erdaldunak besterik jartzen ez dituzten merkataritza gunak, euskara hutsezko agiriak onartzen ez dituzten administrazioak...

Egitasmoa behin abian jarrita, ez du amaiera data zehatzik izango. Hona hemen UEMAKo koordinatzaile Iñaki Arregik esandakoa: "Onena izango litzateke hemendik hilabete batzuetara buzoiak kentzea, horrek esan nahiko duelako euskararen erabateko normalizazioa lortu dela eta ez dagoela euskaldunen hizkuntz eskubideen urraketarik". Egun hori iritsi artean, Itsasondoko udaletako hautetsiek dei egin diete herritarrei buzoiak erabiltzeko eta hizkuntz urraketak salatzen. ■



Ibilaldiaren xehetasunak

Atal honetan proposatzen dizuegu herria eta bere inguruak hobe ezagutzeko aukera.

Lehenengo ibilbidea motza eta erreza aukeratu dugu denon gustokoa izan dadin.

Disfrutzeko aukera emango dizuegu, ibilbidean zehar naturarekin bat egiteko aukera paregabea izango duzute.

Aipatzekoa da, Lizardiko errota ikusteko zoragarria dela, bidean zehar animalia ugari ikusiko ditugu eta Itsasondo argazki panoramiko paregabe batean ateratzeko leku ikusgarriak ezagutuko dituzue.

Ibilaldiaren iraupena 3ordu.

Argazkiek zenbaki bat dute aldamenean, zenbaki horrek norabidea markatzen du, eta ordena ere bai..

Ibilbidearen norabidea hau da:

- Itsasondo-Berostegi auzoa 10´,
- Berostegi- Lizardiko Kruzea 25´,
- Kruzetik-Liardira 45´,
- Lizardi-Urkia 40´,
- Urkia- Ermintza 30´,
- Ermintza-Itsasondo 30´.■





Itsasondoko ondare naturala ezagutuz

Aranzadiko Botanika Saila

2008 urtean zear Aranzadiko Botanika Sailak Itsasondoko ingurune naturalaren azterketa gauzatu zuen. Lan honetan aurrez sortua zegoen informazioa biltzeaz gainera, mendiko lanaren bitartez informazio berria bildu ahal izan da. Modu honetara Itsasondoko ondare naturalaren ezagutzan sakondu da, ingurumenaren kudeaketa eta kontserbaziorako irizpideak finkatuz.

Murumendiko tontorra

Zalantzarik gabe Murumendi eta bere inguruak dira Itsasondoko ondare naturalaren ikur nagusiak, duten garrantzi ekologiko, paisajistiko eta etnografikoagatik. 868 metrotako garaiera duen kareharrizko tontor honen inguruan Itsasondoko baso natural garrantzitsuneak aurki ditzakegu. Hala ere, tontorrean bertan badira balio handiko elementuak ere. Elementu hauen artean berebiziko garrantzia dute landare eta animalia espezie oso berezi batzuk. Landareei dagokienez garrantzi handiena duena Saxifraga losae izanekoa da. Itsasondoko populazio hau Gipuzkoa osoan ezagutzen den bakarra da, eta Araban eta Nafarroan puntu gehiagotan aurkitu badaiteke ere oso arraroa da Euskal Herri osoan. Animaliei dagokienez, harkaiztian kumatzen diren espezieek dute garrantzi berezia, bestak beste belatza handiak, belatz gorriak, erroiak eta zozo paparzuriak.

Saxifraga losae landarea loretan

Itsasondo ia bere osotasunean ingurune oso malda-tsua izanik basoak (pagadiak, baso mistoak, hariztiak, haltzadiak...) eta hauen jarraierako faseak (baso gazteak, sastrakak...) nagusi direlarik, Itsasondo osoaren heren bat hartzen dute. Baso hauetan hainbat animalia espezie bizi edo kumatzen da egun. Hauen artean garrantzi berezi dute hegaztiak, besteak beste aztoreak, gabirailak, zapelatz arruntak, miroz zuriak, okil handiak, okil txikiak, urubiak, hontza zuriak... aurki baititzakegu. Garrantzi handienetarikoa duten baso naturalak Murumendiren magalean aurkitzen diren pagadiak dira, bai tamainari dagokionez bai kontserbazio egoerari dagokionez ere. Baso hauek inguru heze eta lainotsutan garatzen dira eta egun, erregenerazio bidean aurkitzen dira. Zenbait tokitan zuhaitz mugarratuez osaturiko pagadiak aurkitu ditzakegu, garai bateko ikazkintzaren azken aztarna modura; hau dela eta, elementu hauek berebiziko garrantzi dute ikuspegi ekologiko eta historikotik.



Pagadi mugarratua Olatesaltxea inguruan

Hala ere, Lizardi auzoan, pagadi hezeen ertzean oso bestelako baso mota aurkitu dezakegu. Urrezaharreko Tontorreko kareharritan haritz ilaundunaren (*Quercus pubescens*) formazioak aurkitzen dira. Baso hauek, pagadiak ez bezala ingurune oso lehorretan agertzen dira eta kutsu mediterraniarra dute. Baina nola da posible pagadiak eta haritz ilaundunaren basoak elkarrekin agertzea? Azalpena substratuan (kareharriak ura xurgatzeko gaitasuna du inguruan lehortuz) eta orientazioan (egutera aldera daude orientatuak haritz ilaundunaren basoak) bilatu behar da. Bi ezaugarri hauek Lizardi auzoan baldintza oso bereziak sortarazten dituzte, inguru horren dibertsitate ekologiko eta paisajistikoa emendatuz.

Haritz ilaunduna

Itsasondoko beste altxorretarik bat erreka-stoen ertze-ko haltzadiak osatzen dute. Historikoki erreka bazter-rrak giza eragin oso handia jasan dutelarik (bertan lekutzen dira herrigune eta azpiegitura gehienak) oso gutxi dira Gipuzkoan kontserbazio egoera onean aurkitzen diren haltzadiak. Habitat mota honek garrantzi ekologiko oso nabaria duela, kontuan izan behar baita uraren kalitatean duten eragina eta dibertsitate oso handiko guneak izaten direla, bertan lehorreko izaki bizidunak urtarrekin batera agertzen baitira. Esanguratsua da Itsasondoko erreka eta bazterretan bisoi europarraren, ur-zozoaren, amuarrainaren eta bertako ibai karramarroaren presentzia, habitat hauen kontserbazio egoera honaren isla.



Haltzadia Domiku errekan

Herri inguruan aurkitzen diren baso natural gehienak baso harizti eta baso mistoak izan beharko balute ere, baso gaztetzat hartu daitezke. Azken hamarkadetan baso hauekiko presioa txikitu denegun heltze eta zahartze prozesuan aurkitzen dira. Hala ere, baso hauen barruan ere hainbat altxor aurki daiteke. Hauen artean esanguratsuak dira garai bateko gaztainadi zaharrak. Garai batean Itsasondoko ekonomian eta paisaian berebiziko garrantzia izan zuten zuhaitz hauek, egun erabat ahaztuak aurkitzen dira eta indarrez datorren baso gazteaz estaliak geratzen ari dira. Gaztaina mugarratu hauek izugarriko tamaina hartu dute denboraren poderioz eta garrantzi ekologiko oso nabaria dute, animalia espezie askorentzako elikagaia eta babeska eskaintzen baitute.

Gaztaina mugarratuak Urki auzoan

Giza eragin zuzena ere ikus daiteke Lasarte Bideko, Urkiko, Gohierriko edota Lizardi auzoetako landa eremuetan. Baserri-erri loturiko paisaia eta bizimodu honen atzetik mendetako kudeaketa modua da. Landa eremuak mosaiko itxurako habitata sortzen du larre eta belazeak, heskaiak, frutarbolak, basotxoak... konbinatuz. Mosaiko honek hainbat landare eta animalientzako bizitokia sortzen duelarik, aberastasun handiko eremuak dira.

Urki auzoko frutarbolak

Giza eraginaren beste aztarna bat zuhaitz landaketak dira. Landaketa hauetan koniferoak badira ere nagusi (bereziki pinuenak), badira ere Itsasondon bertan hostoerorkorren landaketak ere (platanondoak eta haritz-amerikarrak adibidez). Zuhaitzi hauek baso naturalak eta landa-eremuak larre eta belazeak ordezkatu izan dituzte. Hala ere, badirudi azken hamarkadetan bertako baso naturalak hedaturaz handitzeko joera dutela, landaketak atzean geratuz hauen kudeaketa bertan beheara geratzearen ondorioz.

Herritik hurrun joan gabe asko dago beraz Itsasondon ikusi eta gozatzeko, Itsasondo bereziki udal-erri bereziki aberatsa baita ondare naturalari dagokionean. Errespetatu eta zaindu dezagun beraz guztiok guztiona den ondarea hau. ■



Itsasondoko hiri antolamendu plana

Itsasondoko Udalak, otsailaren 16an egindako udal ohiko bilkuran ITSASONDOKO HIRI-ANTOLAMENDU plana behin-behingo izaeran onartzea erabaki du, jendaurreko epean aurkeztu diren zenbait alegazio erabaki dira aldi berean. Orain onartutako plana eta tramitatutako espediente guztia, Foru Aldundira bidali beharko da behin betiko izaeran onartua izan dadin.

Erabaki horrekin Udalak 2005ean hasitako prozesuari amaiera emango zaio. Dokumentua behin betiko onartzeko hilabete batzu pasatuko dira halere, baino aurtengo urtean prozesu hori ere amaituta egotea espero da. Gero onartutako planean agertzen diren eremu desberdinak kudeatzeko lanketa egin beharko da.

Onartutako dokumentuan aurreikusten diren eremu desberdinetan hiri lurzoruak du garrantzi berezia. Bertan etxebizitza berrien eraikuntzarako zonalde berriak ezartzen dira eta lehengo zonaldetan zenbait aldaketa ezarri ere.

- Egun dauden etxebizitzaren kopurua: 350 etxebizitza
- Proiektu berrien hurrengo 8 urtetarako prebisioa: 102 etxebizitza
- Geroago: 36 etxebizitza

Hirigunean dauden industriak industria lurzorura eramatea aurreikusten denez, lur urbanizagarri gisa kalifikatutako zoruan kokatzea da arauetan jasotzen den helburuetako bat.

Lur ez urbanizagarriari dagokionean, sailkapen berria egiten da honako hauetan sailkatua: Babes berezia, Ingurumenaren hobekuntza, Basokoa eta Nekazaritza abeltzaintza eremua, eremu bakoitzari dagokion arautegiarekin batera.

Arauetan txertatzen den beste dokumentu garrantzitsua Itsasondoko babestutako eraikinen katalogoa da, bertan interes berezia duten eraikinak aipatzen dira, eta ondare hori babesteko onartutako arautegia ere. ■



Mediku etxea: Otsailak 16ean Urrian irisgarritasuna hobetzeko obrak bukatu ondoren, herriko anbulategia normaltasunera bueltatu zen. Finantziak 50.000€ Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta 25.000€ Udalak.

Karreapeko estalpea: Karreapeko estalpearen berrikuntza lanak.

Eskolako Aterpea: Eskolako Aterpearen isolamentu eta berogailuaren instalazio gabonetan hasi ziren. Finantziak: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 27.979€, 18.653€ Udalak.

Karreapeko etxea eta Gaztetxea: Karreapeko etxea eta Gaztetxea udaberri aurpegi garbiketarekin datozte. Finantziak: Foru Aldundiko Kultura Sailak 15.500€, Udalak 18.000€.

Itsasondoko Gazte Plana



Azkenaldian nerabeekin lanean jardun da, hau da, 12-17 urte bitarteko itsasondoarrekin. Gaztelekuak aurrerantzean izan behar duen funtzionamendu eraz eztabaidatzeko zenbait bilkura egin dira. Bide batez, nerabeen proposamenak jaso dira, zer, nola, non eta noiz gustatuko litzaileken beraiei zuzendutako ekintzak burutzea.

Honez gain, 2009 urteari dagokion eta adin-talde honi zuzendutako ekintzen programazio jarrai bat ere aurkeztu zaie. Guzti hau gaztelekuan egingo da. Gaztelekuak fisikoki orain gaztetxea dagoen lekuan kokatuko da. Asmoa, nerabeekin batera gunea pixka bat eraberritzearena da, denen gustoko espazio bat bihurtuz.

Aipatu baita ere, orain arte egindako lan-saio hauetan nerabeen parte-hartzea aipagarria izan dela, gogotsu agertu dira planteamendu berri honen aurrean eta guztion artean errazagoa izaten ari da egitasmo hau aurrera eramatea.

Aurrerantzean, aldizkariko atal honetan, ekintzen eta egitasmoen berri emango dutenak nerabeek izatea da helburu, beraiek bait dira ibilbide honetan protagonista.



Martxoak 8 Nazioarteko Emakumearen Eguna

Aurtengo Martxoak 8-a dela eta, Sorginmakook (Itsasondoko Emakume Taldea) ekimen ezberdinak antolatu ditugu.

Martxoak 4-ean hitzaldi interesgarria izan genuen Jubilatuen Elkartean. Hizlaria Maider Zilbeti Plazandreok-eko kidea izan zen, bertan azaldu zuen bezalaxe, emakumeon partaidetza gizapolitikoa Euskal Herrian aldatu bada ere, lan handia eta maila batean gogorra, landu beharra daukagu. Esan bezala, egoera aldatu da, baina berdintasun batera iritsi nahi badugu, eguneroko dinamikan oinarritzen diren pausoak eman behar dira, ez soilik estadistikak erabili lehengokoarekin konpartuz eta lortu denarekin geldituz.

Martxoak 6-ean Beatriz Kontu-Kantoiko ipuin kontalaria izan zen Herri Eskolan. Sexismorik gabeko hezkuntza etxean, eskolan, kalean, eman behar da. Jolasetan, mozorroetan, ipuinetan eta abar luzeegi batetan, neska mutikoen arteko ezberdintasuna nabariegia dugu, eta hori goibela izateaz gain oso oso desegokia da. Materiala didaktikoak ez al du guztientzat berdin izan behar? Jolasak? Hizkera sexista nahi dugu? Goazen guztion artean hau dena lantzeraz.

Martxoak 8-an herritar ezberdinak eta gehienbat herriko haur-gaztetxoak Herri Eskolan eta Aureskolan "Kolare Ezberdinetako neska mutilak" gairari buruz egindako marrazkiak ikusteko aukera izan genuen enparantzan. Bertan, parte-hartzeagatik txartel panpoxak banatu zirelarik.

Giro polita eta atsegina bizi izan genuen herriko bi trikitixa soinu joleak diren Maider Zabalua Etxaniz eta Ane Mendizabal Izagirrek eskainitako doinu eta kanten bitartez.

Enparantzatik abiatuta, Arbel aitz Elkartera joan ginen bertan goxotasun osoz prestatutakoa gozatzeraz. Mila esker borondate onez eskaintzen diguzuengatik herritar guztioi eta egun horretan emakumeoi bereziki, hauxe da Arbel aitz Elkarteari luzatu nahi diogun mezua

Urtero bezalaxe, herriko emakume bat omendu genuen maitasunez eta samurtasunez. Aurten Lurdes Aranburu Arzak-ek jaso du Sorginmak-en eskutik "Hartu-emana eta kidesasuna" dion zintzilikaria. Gure herriko "dendariak" beti duen irrifarra eta esku zabaltasuna eskertu nahi izan dugu.

Idatzi ttipi honen bitartez, Sorginmak-ekook parte-hartzeraz animatu nahi zaituztegu herriko neska-emakume guztiak. Gure artean elkar-ezagutuz gozatzeaz gain komunikazio polita eta ez sexista landu baitezakegu.

ZUTIK EMAKUMEAK
HAUTSI GURE KATEAK!



Berdintasun planarekin aurrera goaz...

Martxoak 8, Emakume langileen eguna dela eta Itsasondon, bazkari baten bidez ospatu zen eguna. Bazkaria musikaz animatua izan zen, festarako parada ezin hobea.

Bestalde, emakumeon eguna ospatzeko asmotan martxoaren 4an hitzaldia antolatu zen jubilatuek elkartean, bertan, emakumeon parte-hartze sozio-politikoari buruz hitz egin zigun Maider Zilbeti, Plazandreek-eko kideak. Honez gain, eskolako umeentzat ipuin kontaketa ez sexista egon zen eta ondoren marrazkiak egin zituzten, Martxoaren 8 dela eta plazako muraletan erakusgai egon direnak.

Beste behin, parte hartu zenutenoi eskerrak eman eta besteei animatzeko gonbita luzatu nahi diegu hemendik.



*Itsasondoko
I Berdintasun Plana*

Azken aldizkarian azaroaren 25a zela eta egindako ekintzen berri eman zitzaizuen aldizkari honen bidez. Oraingo honetan aldiz, esan, azaroaren 25a eta gero abenduaren 4an hain zuzen ere Berdintasun Planaren aurkezpen publikoa egin genuen udaletxeko aretoan.

Aurkezpen publiko honetara etorri zineten denoi hasteko eskerrak eman nahi dizkizuegu eta etorri ez zinetenoi esan planaren nondik norakoak aurkeztu genituela bertan. Behin planaren aurkezpena eginik orain plana bera aurrera ematea besterik ez da geratzen, eta urteko lehen ekintza indartsua nola ez martxoaren 8aren inguruan izango da.

Honez gain esan udaletxe langileen artean ere formakuntza saioak antolatuko ditugula, azken batean planaren estrategia bati jarraitu nahirik.



Ekaitzaren ondoren lasaitasuna: Hala ote?

Aurtengo negua, gogorretik doala esanda, ez gara motz geratzen. AHT-inguruko gora-berek, badute bai, aurtengo neguaren antzik.

Ez dugu ahaztu behar, Itsasondon, lurren desjabetze prozesua burutua dela. Nahiz eta udalak eta lurjabeak ahalik eta oztoporik gehien jartzen saiatu, Espainiar Gobernuako delegaritzako ordezkariak, Berostegi auzora etorri eta fin bete zuten Madrildik zekarkiten mandata. Honek esan nahi duen guztiarekin, obrak has-teko, argi berdea dutela esan daiteke. Alerta gorrian gaude beraz;

Urtea bukatzearekin batera, teknikari batzuk, gure herrian trenbidearen trazaduaren gainean dauden, hainbat etxe eta baserrietan, inspezio , argazki... egin dituzte, lanen ondorioz (leherketak, lur mugimenduak...) eragin ditzazketen pitzadura, luizi...kontrolatu asmoz.

Onez gero, Urtarrilaren 17an Urbinara gerturatu ginen goierritarrok, panorama beltzarekin egin genuen topo. Hara heldu aurretik , guardia zibilaren kontrolak, pixkanaka herria heltzean, manifestaldi benetan jendetxua egin zen, hori bai bide guztian, polizi eta obretako zaindarien zaintzapean.

Hau amaitzean, ehunka lagunek obretako eremuetan sartzeko ahalegina egin zuten, bertako lurrak simbolikoki berreskuratzeko nahiarekin. Hau ordea ez zen poliziaren gustokoa izan eta protestan geundenok oharterako dinbi-danba pilotekadetatik korrika babestu nahian aurkitu ginen. Zortzi atxilotu , zauritu ugari, kolpeak non-nahi, urduritasun, beldurra ...





Urbinara bueltatzean eta autobusera igotzean, herriko irteera guztiak poliziaz josita zeuden, hauek autobuseetako jende guztia jeitsiarazi eta gaizkile maltzurren moduan hormara begira jarri gintuzten.

Urbinako gertaerak oso-oso larriak izan ziren. Ibarretzek ete Gereñuk sarritan esan dute AHT ren kontra egotea zilegi dela eta posizio hori bermatuta dagoela baketsua bada. Urbinako protesta ezin bake-tsuagoa izan zen gure alderditik. Desobedientzia civil masiboa egitea zen asmoa., obrak modu baketsuan okupatzea.

Gereñu eta Ibarretxen hitzak, haizeak aspaldian ondo urrun eramanak ditu zoritxarrez.

Azkenik komunikabide gehiengoan jarrera lotsaga-bea izan zen, egia ezkutatu egin zuten bertsiio poliziarren atzean babestuta. Jaurlaritzari ez bait zizaion komeni, gizarteak egia jakitzea, nola demontre azaldu behar du, manifestazio baketsu baten bueltan, hainbeste zauritu?

Esan behar dugu badela denbora puska bat, bai Urbinan eta bai Itsasondon herri-galdeketa egin zenetik, bietan parte-hartzaileen gehiengoak ezezkoa esan zuten. Orain Legorretarena izan da txanda, otsailaren 15ean burutu bait zuten herri galdeketa. Jakiña da bertako Udalak, bizi dugun eta askok aho borobilez goratzen duten demokrazi honetan eskuak lotuak izan dituela gauzak behar bezala egiteko. Hala ere, herritar talde bati esker, prozesua aurrere eraman da, eta erantzuna berbera izan da, gehiengoak ezetz esan du.

Badira komeriak, udalek herri-galdeketa bat ezin aurrera eraman, baserritarrak beraien lurra ezin gobernatu, herritarrak ezin manifestatu...guzti hau dena legearen eta demokraziaren izenean, ze demontre gero!

Krisi hitza, hitzetik hortzera darabilgun garai honetan, demokraziak ez al du aspaldiko krisialdi larriena pairatzen? ■



Informazio gehiago:
www.ahtgelditu.org
www.blogak.com/goierrikoahetz
<http://sindominio.net/ahtez>



Pardel berrerabilgarriak Itsasondoko haur eskolan

Otsailaren 9tik, Itsasondoko Haur Eskolan oihalezko **Pardel Berrerabilgarriak** erabiltzen ari dira: gure artean hain ohiko bihurtu diren behin erabili eta botatzeko pardelak albo batera utzi, eta pardel berrerabilgarriekin hondakinen sorrera murriztu nahi da.

Haur batek, bere bizitzan batazbeste 5.000 eta 6.000 pardel tartean kontsumitzen dituela kontutan hartuta, eta hauek behin erabili eta botatzekoak direnez zabortegian bukatzen dute, zabor bolumena nabarmenki igoz. Hemengo daturik ez badaukagu ere, Britainia Handian *Women & Environment Network (WEN)*-ek eginiko azterketa baten arabera, udalerrri batean sortzen den etxeko hondakinen %3-%4a behin erabili eta botatzeko pardelek osatzen dute(jaiotze tasa altuko gunetan portzentaia hau altuagoa izan daitekeelarik).

Datu hauek ikusita, eta Itsasondoko Udaleko Agenda 21 egitasmoaren barruan Hondakinen murrizpena helburu nagusi batenez, udalak Haur Eskolarekin elkarlanean pardel berrerabilgarriak erabiltzeko kanpaina abiarazi du. Helburua, gurasoen ohiturak pixkanaka aldatzen joatea da, pardel berrerabilgarrien erabileraren aukera ezagutaraziz eta hauen erabilera erraztuz. Haur Eskolan ireki da bidea: guraso bakoitzaren esku geratzen da etxean erabiltzeko pardel mota, baina Haur Eskolan, pardel berrerabilgarriak erabiliko dira bertan garbituko direlarik. Guztira 45 pardel jarri ditu udalak Haur Eskolako eskura.

Proiektu honetarako ezinbestekoa izan da Haur Eskolako arduradunek erakutsi duten borondate eta jarrera ona: parde-lak garbitu behar izatean, beraiek lan gehigarri bat gehiago izango baitute eta. Era berean, Haur Eskolako gurasoek erakutsitakointerеса ere nabarmentzekoa da. MILESKER GUZ-



Zenbait datu (Women & Environment Network-ek eginiko azterketatik aterata)

- Behin erabili eta botatzeko pardelek 3,5 aldiz energia gehiago behar dute ekoiztiak izateko.
- 2,3 aldiz hondakin-ur gehiago sortzen dute bere ekoizpenean.
- 8,3 lehengai ez berriztagarri gehiago erabiltzen dira behin erabili eta botatzeko pardelak egiteko.
- Lehengai berriztagarriei dagokionez, 90 aldiz gehiago erabiltzen dira behin erabili eta botatzeko pardeletan.
- 60 aldiz hondakin solido gehiago sortzen dute.
- Ekoizteko beharrezko lur azalera 30 aldiz gehiago erabiltzen dute.



Munduko haurrak

Munduan era askotako haurrak daude, Amerikakoak marroiak, Europakoak haragi kolorekoak, Afrikoak beltzak, Asiakoak horiak, Antartida eta Oceaniakoak txuriak.

Ni Euskal herrikoa naiz, Itsasondo izeneko herri batekoa. Hemen haurrak faltan daude Txinan berriz soberan.

Txinatik Palestinara egingo dugu salto. Palestinan haur asko ari dira hiltzen gerratearengatik. Batzuei ama eta aita hiltzen zaizkie eta pertsona batzuk adoptatu egiten dituzte.

Euskal Herrian ez gara hain gaizki bizi.

Mota askotako haurrak ez daude koloreagatik bakarrik, baita hizkuntzarengatik ere: gaztelania, ingelesa, frantsesa, afrikanoa, mandarin, euskara...

Hemen euskaraz hitz egiten da, beno gaztelaniaz eta frantsesez ere bai.

Euskal Herrian hiri bakoitzak bere festa du. Donostian danborrada, Bilbon Mari-jaia, Gasteizen Zeledon, Iruñan

San Ferminak, Iparraldean Maskaradak. Munduko leku guztietan ospatzen dira festak.

Haurren koloreak asko daude badakizu zergatik diren? Orain ikusiko duzu: Afrikan eguzkiak erre egiten du. Amerikan beroa egiten du. Asia lehorra da.

Europan era guztietako eguraldia egiten du.

Antartida eta Oceanian hotza egiten du.

Baina kolore ezberdinetako haurrak garela ez digu bakarrik gure azaleko koloreak edo hitz egiten dugun hizkuntzak erakusten. Mundu guztian zehar gauden neska-mutilak gustu, sentimendu eta ohitura ezberdinak ditugu eta guztiok batera kolore ezberdinetako gizarteak eraiki nahi dugu.

Aitor Garmendia Etxeberria
3. maila



Piratek herria abordatu zuten

Ostiralean Itsasondon iñauteriak ospatu ziren; piratekin batera arrainak, naufragoak eta baita sirenak ere. Itsasondo eskolako haurrak herrian zehar mozorratu desfilatu zuten, kaleak alaituz. Gurasoek oso ondo pasa zuten ikasleak prestatutako dantzak ikusten. Azkenik, meriendatxo batekin bukatu zuten.

Ijito-Eguna

Otsailaren 14an, ijito eguna ospatu genuen Itsasondon. Arratsaldeko 6etan elkartu ginen Itsasondoko plazan, dotore-dotore ijitoz jantzita. Zartaginak eta mailuak jo ta su joaz ibili ginen, eta ez zen zaratarik falta izan Itsasondoko herria, musikaz lagundurik, zeharkatu genuenean.

Herriko bueltaren ondoren, Kaxintanen afari merienda goxoa egiteko aukera izan genuen. Gazte eta helduak txorixo, patata tortilla, kroketak eta pizza nahi hainbat jan genuen inauteri giroko musika eta abestiez lagunduta. Giro ederra sortu zen mahaiaren inguruan, eta egia esan, bertan ginenok oso ondo pasa genuen.

Datorren urtera begira, helduak gurekin batera ijitoz janztera eta zarata ateratzera gonbidatu eta animatu nahi genituzke. Datorren urtera arte.



Korrika 16, ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira!

Korrika AEK-k (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak) antolatzen duen bi urteroko euskararen festa da. Lekukoa Euskal Herriko geografian zehar gidatzearen helburua herritarrek euskarari sostengua adieraztea, eta AEK ekonomikoki finantzatu ahal izateko diru-sarrerak biltzea da.

Martxoaren 26an Korrikak Tuteran emango dio bere ibilbideari hasiera, eta Gasteiz izango helburu, apirilaren 5ean. Ibilbide horretan Euskal Herriko hainbat eta hainbat herri eta txoko zeharkatuko ditu lekukoak. Korrika Itsasondoko lurretan ibiliko da apirilaren 2an eta Itsasondoarrek behar bezalako harre-ra egin nahi diogu euskararen lekukoari. Hori honela izan dadin, ondorengo ekintzak antolatu ditugu:

- Martxoaren 8an, eguerdian, Korrikako material salmenta izango Itsasondoko plazan.
- Apirilaren 2an, Korrika goizeko 10:00etan gerturatuko da Itsasondora, herritar guztiok kalera atera, eta ahal duena, Korrikan parte hartzera animatzen dugu.

Arratsaldean Korrika Txikia izango da, 5:30ean Aramatik aterako da, eta txikienek lekukoarekin herrian zehar ibilbidea egin ondoren jolasak eta merienda izango dituzte plazan.

- Apirilaren 3an, Korrika Kulturalaren barne, 19:00etan Bertso-Triki-Poteoa izango da. Ondoren, Bertso-Triki-Afaria izango da Arbel-aitz elkartean.
- Apirilaren 5ean, autobusa izango da Gasteizko Korrikaren amaiera festara joan nahi duenarentzat.



Santa Ageda bezpera



Azken urte hauetan bezela, Santa Ageda bezpera ospatzera animatu ginen herriko haur, guraso eta gainontzeko herritar guztiak.

Arratsaldeko 6etan, herriko enparantzan elkartu ginen guztiok, eta konpainia onean egin genuen herrian zeharreko ibilbidea. Mikelek koplak abestu eta Urkok, berriz, trikitiari eragin. Gainontzekoek hauek laguntzen nahiko lan.

Oso giro polita sortu zen; etxez etxe abiatu ginen herriko txoko guztietan zehar, makilla eskuetan eta kopla lagun genuela, eta behingoz, eguraldia ere lagun. Nola eskertzen den eguraldi ona!

Kantuak amaitu genituenean, haurrentzat afari-merienda izan zen Arbel-aitz elkartearen. Zein ondo sartu zitzaizkigun txistorra pintxoak, olibak eta patatak. Eta ondoren, gautxorientzat afari goxo-goxoa prestatu zuen Ikerrek. Beraz, guztioi eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Eskerrik asko parte hartu zenuten guztioi.

Olentzero



Talo festa

Urtarrilaren 17an, Talo festa izan genuen Itsasondoko Errota pilotalekuan. Arratsaldean, gazteenek txokolatea egiteko tailerrari ekin zioten, txokolate goxoa egiten ikasi, eta dastatzeko aukera izan zuten.

Txokolatea ondo sartu bazen ere, jendeak talo usaina hartu bezain pronto, talogileen inguruan ez zen jenderik faltatu. Aurten, aurreko urteetan bezala, taloak ederrak zeuden eta horren lekuko dastatu ziren 273 taloak; horretarako atsedenek hartu gabe, lanez lepo aritu ziren talogileak.

Aurtengo beste berrikuntza bat Itsasondoko iraileko jaietan ateratako argazkiekin egindako DVDa izan da; hainbat irribarre eta oroitzapen sortzeko oso tresna egokia dela ikusi da. Datorren urtean, gehiago eta hobeto.

Azkenik, egun horren inguruko berriak ez genituzke amaitu nahi Herriko Talogileei eskerrak eman gabe. Batetik, urtero hain borondate beraien lanarekin egun hau iraunaraztea posible egiten dutelako, eta bestetik, talo-festean bilduriko 273 euroak Itsasondoko haurrek Brasilgo haurrentzat bildutako opariak bidaltzeko eta bertako eskolatan material didaktikoa erosteko bideratu dituztelako.

Hurrengo urtean ere talogileak eta txapa josta su ikustea nahi dugu, gu beti bezala jateko pronto aurkituko gaituzte.



Euskal Herriko mus txapelketako Itsasondoko kanporaketa

Otsailaren 6an, Itsasondoko Arbel-aitz elkartearen Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketa izan zen. Gaueko 22:00etan hasi ziren jokoan eta bikote irabazlea Aitor eta Jabi izan ziren; hauek Euskal Herriko Mus txapelketan aurrera egitea lortu dute.



Liburuaren txokoa

NIRE AITA ETXEKOANDREA DA; ETA ZER?

Silvia Ugidos-Mikel Valverde



Lucilaren aita ez da irakaslea, ez da arotza, ez da taxi gidaria... Lucilaren aita etxeandrea da. Badaki tarta goxoak egiten, badaki arropak garbitu, zabaldu eta lisatzen. Baina batez ere, bere ingurukoak zoriontsu egiten daki, ipuinak kontatzen, dantzan, bihurrikeriak egiten... eta bere seme-alabei eskolako lanetan laguntzen daki. Oso pozik dago Lucila bere aitarekin. Hasieran bai, baina orain Lucila ez da lotsatzen bere aita etxeandrea dela lagunei esaten.

KIKA SUPERSORGINA, MENDEBALDE BASATIAN


Knister



Halako egun batean, ohe ondoan, magia liburu bat aurkitu zuenetik, Kikari izugarri gustatzen zaio sorginkeriak egitea. Magiak oraingo honetan Mendebalde basatira eramango du Kika; bertan, Entxilada Haragizko, Bobby Gihartsu eta Hilari Lurperatzaile ezagutuko ditu. Beraiekin bizitako abenturak ezagutu nahi? "Kika Supersorgina, mendebalde basatian" kontu gehiago.

UN ARBOL CRECE EN BROOKLYN

Betty Smith



Francie Nolan, Irlandar immigranteen alaba da eta Brooklynen bizi den familia txiro batetan bizitako haurtzaro eta gaztaroko bizipenen berri ematen digu. Garai horretan, eguneroko atsekabe eta penetatik ihes egiteko beste mundu batera salto egiteko bidea aurkituko du, liburuak zabaltzen dioten mundua, hain zuzen ere. Hau guztia modu xume eta hunkigarri batetan idatzia aurkituko dugu, sentimentaltasunean erortzen utzi gabe. Gustura irakurtzen den nobela duzue honakoa.

EL ARTE DE CONDUCIR BAJO LA LLUVIA


Stein, Garth



Enzo txakurra da nobela honetako protagonista. Bere txakur bizitzan zehar gaur egungo gizakia eta gizartearen eza-gutza sakona izatea lortu du, eta hil aurreko egunetan, horren inguruko gogoetak egiten ditu. Hau guztia humore eta xamurtasunez idatzirikoa nobela batean. Sarri txakurrik gizakiok baino gogoetarako gaitasun gehiago dutela erakusten dute.

BILBAO - NEW YORK - BILBAO

Kirmen Uribe



Haize berria dakar Kirmen Uriberen azken liburuak. Kontagintza-mota ohikoak alde batera utzita, autofikzioaren bide-tik jo du bere lehenengo eleberri hau idaztean.

Loiun abiatu eta JFK aireportura iristen den hegazkin-bidaia bat da, berez, Bilbao-New York-Bilbao eleberri hau. Baina, hegaldiarekin batera, hiru belaunaldiren historia kontatzen digu: aitona-amonei dagokien gerra aurrekoa, gurasoen sasoioko frankismoarena, eta idazlearena berarena. XIX. mendean hasi eta XXI.eraingo doan epopeia txiki baten moduan; batetik besterako lokarri.

FATUM

Jon Arretxe



Lisboako bazter ilunenak garbitzen ari da norbait: kalean dabiltzan prostituta zaharrak, jonkiak, eskale eta arloreak hilik agertzen hasi dira; horietako bat zen Mariza, eta hiltzailearen bila ekingo dio haren adiskide Mario Barbosak.

Polizia ohi eta fado-kantaria, cachaça-edale eta bihozbera, Mario Barbosa da istorio honetako pertsonaia berezi eta ahaztezinetako bat. Bestea, berriz, Lisboako hiria bera, bertako aldapa eta tranbiak, kale estu eta begiratokiak, maitemintzeko nahiz hiltzeko aproposak izan litezkeen txoko ezkutak.

Otsailean Itsasondoko liburutegian erosi diren liburuen zerrenda:

- El club de las malas madres.** Lucia Etxebarria
- La soledad de los números primos.** Paolo Giordano
- Eclipse.** Stephenie Meyer
- Tengo ganas de ti.** Federico Mocerca
- El fuego.** Katherine Nevile
- El lector.** Bernhard Schlink
- Fatum.** Jon Arretxe
- Bilbao-Bew York-Bilbao.** Kirmen Uribe

Lehiaketa mundiala



Hemen duzue berriro ere lehiaketa mundiala. Azkeneko alean inork asmatu ez duenez oraingo honetan argazki berdina proposatuzten dizuegu.

***Ez ahaztu afari mundial bat dagoela jokoan; hona hemen gure helbidea:
itsasondo2.0@itsasondo.net***

Komikia



! GOGORAZTEN DIZUEGU HURRENGO ALEA EKAINEAN IZANGO DUZUTELA ETXEAN.

itsasondo2.0

Herriko aldizkaria ((4. zk)) apirila-ekaina 2009